


# Noaua!!

H A M A B O S T E K A R I A

1999ko maiatzaren 7a IV.urtea

Usurbil, 66. Zenbakia



**Eskerrik asko  
jostailuengatik**



## Txerrimunik ordainetan



Maiatzaren 2an 4 urte bete zituen **Endika larrañaga Matxainek**. Zorionak eta muxu haundi bat zure aita-jainaren eta Olaia eta Borja zure lagunen partetik.



Urte askoan **Iratxe Angulo Galatas**. Maiatzaren 10ean bi urte egingo dituzu. Ze haundia; Muxuak aita, ama eta txirristako lagunen partez.



Zorionak parrandera! Ja 32 urte beteko dituzu maiatzaren 12an. Ene! Ze zaharra! Beno, zorionak familia guztiaren partez eta ondo pasa zure eguna. Urte askuan segi horrela "**Eukene**"!



Zorionak **Elixabet**, maiatzaren 11ean zure urtebetetzea da, ea afari goxo bat prestatzen diguzun. Zure guraso, anai, Joseba eta lehen-gusuen partetik. Urte askuan.



Urteaskuan **Jon Portu**. Maiatzaren 3an 8 urte bete zenituen eta espero dugu ondo pasako zenuela. Etxekoak.



Zorionak **Josu eta Aitziber!** Maiatzaren 15ean zuen urtebetetze eguna denez, ondo pasa eguna. Muxu haundi bat aita eta amaren partetik.

**Seme-alabak, aiton-amonak, lagunak, lehen-gusuek... zoriondu nahi badituzu hemen duzu aukera. Lortu argazkiak eta ekarri jarri nahi duzun testuarekin batera.**

**Hurrengo alea: maiatzaren 21ean**  
**Agurrak ekartzeko epea: maiatzaren 14an**

## Jaiotzak

**Nahia Leonet Zuloaga**  
(1999-04-6)  
Añorga

**Mattin Aierbe Zubeldia**  
(1999-04-26)  
Muna Lurra

## Hildakoak



1999-04-22  
**Martin Manterola Ostolaza**  
77 urte  
Kaleberri



1999-04-23  
**Pakita Olasagasti Arana**  
72 urte  
Agerre Haundi baserria

**Bai, esan?**

- Udala 37 19 51
- Udaltzaingoa 36 11 12
- Anbulategia 36 20 13
- Udarregi ikastola 36 12 16
- Agerialde ikastetxea 36 38 95
- Oiarde kiroldegia 37 24 98
- Zumarte musika eskola 37 15 94
- Etumeta euskaltegia 37 20 01
- Taxi geltokia 36 21 78
- D.Y.A. 46 46 22
- Gurutze Gorria 27 22 22
- Gure Pakea egoitza 37 32 28
- Gure Elkarreko egoitza 37 17 51
- Arrate egoitza 36 63 40
- Eusko Tren informazioa 47 09 76
- Noaua! aldizkaria 36 03 21

## EUSKO TRENBIDEAKEN UDABERRIKO AUTOBUS ORDUTEGIA

ASTEGUNETAN						ASTEBURUTAN		
Donostia	Usurbil	Zarautz	Zarautz	Usurbil	Donostia	Donostia	Usurbil	Zarautz
07.40	08.05	08.25	06.45	07.05	07.30	07.30	07.55	08.15
08.00	08.25	08.35**	07.15	07.35	08.00	08.30	08.55	09.15
08.40	09.05	09.25	07.45	08.05	08.30	09.30	09.55	10.15
09.00	09.30	09.40 *	08.15	08.35	09.00	10.30	10.55	11.15
09.40	10.05	10.25	08.45	09.05	09.30	11.30	11.55	12.15
10.40	11.05	11.25	09.20**	09.30	10.00	12.30	12.55	13.15
11.40	12.05	12.25	09.45	10.05	10.30	13.30	13.55	14.15
12.00	12.25	12.35**	10.20*	10.30	11.00	14.30	14.55	15.15
12.40	13.05	13.25	10.45	11.05	11.30	15.30	15.55	16.15
13.00	13.30	13.40 *	11.45	12.05	12.30	16.30	16.55	17.15
13.40	14.05	14.25	12.45	13.05	13.30	17.30	17.55	18.15
14.00	14.30	14.40**	13.20**	13.30	13.55	18.30	18.55	19.15
14.40	15.05	15.25	13.45	14.05	14.30	19.30	19.55	20.15
15.00	15.25	15.40*	14.20*	14.30	15.00	20.30	20.55	21.15
15.40	16.05	16.25	14.45	15.05	15.30	21.30	21.55	22.15
16.40	17.05	17.25	15.20**	15.30	15.55	22.30	22.55	23.15
17.40	18.05	18.25	15.45	16.05	16.30			
18.00	18.30	18.40*	16.20**	16.30	17.00			
18.40	19.05	19.25	16.45	17.05	17.30			
19.00	19.25	19.35**	17.45	18.05	18.30			
19.40	20.05	20.25	18.45	19.05	19.30			
20.00	20.30	20.40*	19.20*	19.30	20.00			
21.00	21.25	21.45	19.45	20.05	20.30			
22.00	22.30	22.50	21.15	21.35	22.00			

Zarautz	Usurbil	Donostia
06.45	07.05	07.30
07.45	08.05	08.30
08.45	09.05	09.30
09.45	10.05	10.30
10.45	11.05	11.30
11.45	12.05	12.30
12.45	13.05	13.30
13.45	14.05	14.30
14.45	15.05	15.30
15.45	16.05	16.30
16.45	17.05	17.30
17.45	18.05	18.30
18.45	19.05	19.30
19.45	20.05	20.30
20.45	21.05	21.30
21.45	22.05	22.30

\* Orioraino bakarrik      \* Oriotik iritetzen da  
\*\* Alaraino joaten da      \*\* Aiatik iritetzen da

# Zer irizten?



## Argitaratzailea

Noaua! Kultur Elkarte  
Bordaberri 3 Eguzkitzaldea  
20.170 Usurbil (Gipuzkoa)  
Tlf. eta faxa: 943 36 03 21  
E-mail: noaua@topagunea.jalgi.com  
Web orria:  
<http://www.jalgi.com/topagunea/noaua/>

## Zuzendaria

Olatz Altuna

## Kazetariak

Josu Aranberri, Amagoia Mujika eta Agurtzane Solaberrieta

## Publizitatea

Saioa Erro eta Idoia Torregarai

## Kolaboratzaileak

Pedro Mari Matxain, Ines Kamino, Leire Atxega, Iñaki Labaka, Iratxe Begiristain, Amagoia Mujika, Xabier Arregi, Pako Agudo, Alfontso Vidal, Alazne Begiristain, Zaloe Arnaiz, Maribi Arrospeide, Agurtzane Solaberrieta, Joseba Pellejero, Ainara Uribe, Eider Jauregi, Olatz Leoz, Mikel Bengoetxea, Agustin Esnaola, Izaskun Zubiria, Olatz Goenaga, Izaro Aizpurua, Joxe Loidi, Begoña Arriaga, Urko Manterola, Eneko Harreguy, Karmele Urdanpilleta, Joseba Zubeldia, Imanol Goenaga, Joxe Torregaray, Manuel Begiristain, Jone Aliri, Eukene Kamino, Olatz De Miguel eta Arantxa Irazustabarrena.

## Administrazioa

Arantxa Usarralde, Aitor Pikabea eta Nerea Kamino.

## Erredakzio Kontseilua:

Olatz Altuna, Idoia Torregarai, Josu Aranberri, Ainhoa Azpiroz, Amagoia Mujika, Agurtzane Solaberrieta eta Inaxio Usarralde.

## Maketazioa eta diseinua

Susana Martin, Aitziber Elortza, Olatz Goenaga eta Mertxe Gonzalez.

## Dokumentazioa

Idoia Agirre, Aintzane Aizpurua eta Nagore Gonzalez

## Informatika

Pili Lizaso eta Karlos Aizpurua

## Banaketa

Mertxe Jimenez, Xabier Kamino, Txelo Vidal eta Iker Muguruza

## Elektrikaria

Iñaki Salsamendi

Tirada: 2.600 ale

Lege-Gordailua: SS-668-96

ISSN: 1136-6818

Inprimategia: Antza

Noaua! hamabostekariak ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik.

Noaua! Kultur Elkarteke jendaurreko ordutegia: 16.30-18.30 astegunetan

**Azala: Mikel Elexpe Lojako haurrekin jostailuen lehen paketea aurrean dutela**



## Maiatzaren Lehena eta 21eko Greba Eguna

Roxendo Lizaso

Kraff-eko komitean LABeko delegatua

Maiatzaren lehenak langileriaren esanahi berezia duenez, munduan zehar hainbat ekitaldi antolatatu da.

Euskal Herrian ditugun sindikatu ezberdinen aldetik, Maiatzaren lehenari eman behar zitaion edukiaz, berezitasunak egon direla esan daiteke. Horren adierazle ditugu IRUÑArako sei sindikatu(ELA, LAB, ESK, STEE-EILAS, EHNE ETA HIRU) ezberdinek eginiko deialdia, eta bestetik bik (CCOO eta UGT) egindakoa.

Nahiz eta errebindikazioen aldetik berdinak zirela iruditu, ekitaldiak egiteko aukeratu diren guneek, esanahi sakona dutela aipatu behar da. Azken aldi honetan bizi dugun itxaropenezko egoeraren aurrean, sindikalgintzan ere dagoen adostasun eza nabaritu delarik. Izan ere, beti ere nereuste apalean, bizi dugun egoera bere osotasunean azalerazteak, ez baitut uste kalterik ekar diezaiokeenik Euskal Herriko Langileriari. Aberastu egiten duela baizik.

Urteak daramatzate LAB eta ELA sindikatuek **lan harremanetarako euskal esparru** propioaren aldarrikapenarekin, eta garbi dago Hegoaldeko egitura batetan **Nafarroak** esanahi handia baduela. Esparru propio horretarako Euskal sindikatu Abertzaleek Maiatzaren Lehenerako deia Iruñeara luzatzean, garrantzizko pausu bat eman da.

Iruñeakoa, 35 ordu eta soldata sozialaren alde aldarrikatzearekin batera, elkartasun eguna ere izan

zen. Horren adierazle genituelarik Nazio ezberdinetako partaideen aldetik jasotako atxikimenduak.

Aurtengo Maiatzaren Lehena, Euskal Herriko Sindikatu ezberdinek Iruñean jasotako arrakastaz gain, hil honen 21eko **greba egunaren-tzat** bultzada handia izan dela esan beharra dago.

Azken aldi honetan LAB eta ELAko bozeramaileen aldetik, behin eta berriz "patronalaren itxitasuna dela medio mahaian izan ditugun negoziatioetan, azken urte ta erdi honetan ezer ez dugu lortu" edo "azken urte ta erdi honetan ez da negoziatorik egon mahaian" entzun dugu. Itxitasun hori izan da hain zuzen ere 21eko GREBA EGUNAREN deia ekarri duena.

Ez da oraingoa "hemengo" patronalaren itxitasuna. 35 orduen aldekko aldarrikapenak geroz eta babes gehiago duenean, gobernu ezberdinen aldetik geroz eta laguntza gehiago dagoenean eta "hemengo" patronalaren aldetik inoiz lortu dituen irabazirik haundienak zabaldu direnean, bere arduragabekeria erakutsiz, ez du 35 orduaz ezer entzun nahi. Nahiago du oraingo lan baldintza kaxkarrarekin jarraitu.

Maiatzaren Lehenean, langileon eskubideen alde kalera irten ginen bezalaxe, 21 arte landu dezagun GREBA EGUNA eta egun berean kalera irten gaitezen. Horrela, Maiatzaren lehenean ereindako hazia, 21ean fruitu emankorrek eman ditzan.



Usurbilgo Udalak diruz lagundutako aldizkaria



Kultura sailak diruz lagundutako aldizkaria



Gipuzkoako Foru Aldundiak diruz lagundutako aldizkaria

Euskal presoak



Euskal Herra!

## AKATSAK ZUZENDUZ

**Aurreko alean, arazo tekniko batzuen ondorioz Mendigaña Gorostiagaren okerreko artikulua argitaratu genuen. Bai berak eta bai zuek barkatuko diguzuelokan goiko hau duzue 65.alean atera behar zuen artikulua.**

"Haur eta gasteengan aberaste iturri handia den horretaz hitzegitera natorkizue gaur: antzerkigintza hain zuzen ere. Askok eta askok kanpotik begiratu eta gertutasunez amesten duten zera hori da antzerkia, eta ametsak gauzatzeko bidea antzerkigintza.

Ikastolan, egun, D.B.Hko lehenengo mailan lantzen da, kurtsu erdiz, talde txikietan. Erreformak eskeini digun hautazko gaietako bat da, baina honen zain egon gabe, aldaketa hauen aurretik ezarria zuen ikastolak arlo hau, beti garbi izan baitu honek dakarren onura eta aberastea haundiak direla.

Egun, gai honen inguruan egiten dugun lanaren alderdi bat antzerki obra bat prestatzea da, eta hau da hain zuzen ere ezagutzen eta kanporatzen dena. Baina bada horren aurretik sakontzen dugun mundu bat, gorputz adierazpena: erlajazio ariketak, adierazpena, eritmo ariketak, kideen arteko konfidantza, lanketa honen alderdi

bat dira. Honekin batera, eta garrantzi bereziaz, talde eta norbanako dikotomian sartzen diren sentimendu eta bizipenak daude.

Antzerki obra kanpora begira egiten den zerbait da, baina horren azpian, askoz garrantzitsua goa den norberaren izaeraren sortzean egiten den lanketa dago. Antzerkigintzaren garrantzia, azken finean, bertan sartzen diren ikasleak aberastuta ateratzean datza.

Ikasle hauen adinetan, orain arte aipatu ditugun ideia hauek berebiziko garrantzia hartzen dutelakoan nago, norberaren izaeraren sendotzean, adierazpenerako trebetasunetan, autoestimaren hobekuntzan, talde dinamiken egokitasunean, garai hauek klabeak izan baitaitezke. Hala ere, eta honi jarraitzen emanez, gerora ere landu beharreko esparruak direla uste dut, norbanakoaren aberastea ez mugatzean baitago aberastasunik haundiena.

Lehenago aipatu dudan bezala, lan honekin batera bada jendearengana iristen den beste alderdi bat, antzerki obra hain zuzen ere. Lan hau luzea eta neketsua izaten da askotan, baina ilusioa dela medio, kemen haundiz egiten dute aurrera ikasleek. Norberaren papeira ikasi, pertsonaiaren irudikapen egokirako jantziak eta bestelakoak

loru, eszenatokia itxuraldatu, musika prestatu,... eta amaitzean, beldurrari aurre egin eta jendearen aurrean agertu. Nahiko lan, eta baliabide urriak.

Bai antzerki obra prestatu eta gauzatzeko mementuan, bai eta goputz espresioaren inguruan egiten diren ariketetan ere, partaideen jarrerak dira sakonean aldatzen direnak, bakoitzak hartzen dituen rol ezberdinak beste baten lekuan jartzeko ematen dion aukera landuz.

Hau irakurtzen ari den edonor konturatuko da, proiektu honetan neska mutikoez asko ikasten dutela. Ametsa, lankidetzeta, taldea, norbanakoa, sentimendua, adierazpena, konfidantza, sentsibilitatea, laguntasuna, errespetua, irudimena, artea, irekitasuna, ... hori eta gehiago da antzerkia, hori eta gehiago eskeintzen du antzerkigintzak.

Bukatzeke, eta esandakoak kontrentzitzen bazaituzte behintzat, antzerkia egitera gonbidatu eta animatu nahi zaituztet, herri honetan diren aukera on eta ugariak aprobetxatuz.

Zorionak ikastolatik pasa zareten antzerkilari orori eta zatoztenei animo guzuri!!"

Mendigaña Gorostiaga



Hona hemen paretetik ateratzen den zuhaitza.


Aurreko alean Atxegaldeko kronikan agertzen zen bezala gauza kuriosoa hauxe ere. Zuhaitzak gero eta gutxiago eta hormigoia gero eta gehiago ikusten den garai honetan paretetik zuhaitzak ateratzen hasi ote dira ba?

# PATRI

## JATETXEA

Eguneko bazkariak  
eta afariak

Nagusia 6, 20170 Usurbil  
Tel.: 943 36 27 25 (Gipuzkoa)



# Ekaitz

## Bideo eta Argazkiak

Usurbil

tlf 943 36 14 87

oIARTZUN

# ORBELDI

MARKEL OLAIZOLA  
ASEGURU AGENTEA / Zbk. 200009



ESTRELLA  
Aseguru Konpainia


Mota guztietako Aseguroak  
zure zerbitzurako

Zubikamena, 10  
Tel. 943 37 18 07- Fax: 943 37 63 41



## Jose Maria Granados Diaz

Cacereseko Coria herrian jaioa, Gipuzkoa aldera etorri zen 11-13 urte zituenean. Urnieta eta Orian bizi ondoren, ezkondu eta gero Usurbila etorri zen bizitzera. 63 urte baditu ere, bizikletaz bere kilometroak egiten ditu asteko zenbait egunetan.



### Oso gazte zinela etorri zinen Gipuzkoa aldera ezta?

Ni ez nintzen etorri, ekarri egin ninduten. Nire aita igeltseroa zen, oso ona gainera eta 1918an Donostian egona zen La Perla aurreko etxeak egiten. Euskal Herria ezagutu eta hemen han baino kultura haundiagoa zegoela ikusi zuen. Seme-alaben onerako izango zela eta Urnietara ekarri gintuzten.

### Aldaketa gogorra izan al zen?

Lagunak segituan egin nituen, izan ere irekia izan naiz beti. Lurdes Iriondo abeslariaren anaiak ere tartean zeuden eta oso kuadrila ona osatu genuen. Garai hartan Urnieta oso herri txikia zenez denok ezagutzen ginen.

### Gero,berriz, Oriara bizitzera

Hori gogorragoa izan zen, ia lotu egin behar izan ninduten. Min haundia eman zidan. Hala ere ezkondu eta gero ere Orian bizi izan ginen 11 urte-tan ondoren Usurbila etortzeko. Hori bai, ezkondu, Usurbilen ezkondu ginen, Julian Azpiroz ia bi metroko apaiz hark ezkondu gintuen.

### Eta Usurbilen zer moduz?

Oso gustora, hemendik aldegitoko eraman egin beharko naute, bestela...

### Garai batean ia irakasle ikasketak egiten hasi zinela esan didate.

Magisterio egiten hasi behar nuen baina, ditxosozko futbolagatik ez nuen karrera hasi. Futboleant jokatzeko nuen, baina etxean ez zidaten jokatzeko uzten. Garai hartako gurasoak oraingoak baino gogorragoak ziren. Biak batera egin izan ezker agian irakasle karrera aterako nuen. Hala ere, azkenean ez bata eta ez bestea.

### Zer taldetan jokatzen zenuen futboleant?

Behar ninduten taldean. Orain jokalaria denak kontrolatuta badaude ere, lehen fitxa kontuak ez ziren hainbeste zaintzen. Batean batekin eta bestean bestearekin jokatu zitekeen. Txantxila, Berazubi eta Mitxelingo zelaietan jokatua naiz besteak beste.

### Korrikalaria ere izan omen zinen.

Hasieran bai, korrika egiten nuen. Tolosa taldearekin aritzen nintzen, eta Berazubin entrenatzen genuen. 100, 400, 800 eta 1500 metroak egiten nituen. Ez nintzen gaizki ibiltzen, baina Pouldidor bezala bigarrena izan naiz beti.

### Zergatik diozu hori?

Behin, Anoetako pistan korritzen genuen eta erdian rugbyko partidua jokatzen ari ziren. Helmugara iristen ari ginenean lehen postuan zihorana pasatzera nindoan, baina... rugbyko baloia hanka artean hartu nuen eta hortxe amaitu zen nire laisterketa. Egunkarietan ere ateratzen nintzen, "La hoja del Lunes" en hain zuzen ere.

### Kirolak asko gusatzen zaizkizu ezta?

Bai egitea, eta bai ikustea ere. Kirol batzuk ez ditut ulertzen, baina hor egoten naiz begira. Niri edozer gusatzen zait, garbantzuak ere bai.

### Nola?

Izan ere, txikitik ez zitzaidan garbantzuak jatea gustatzen. Ceutara soldaduska egitera joan eta han, kafesne antzeko bat eman, gero munizioa eta Marrokora eraman gintuzten. Afaltzeko zer jarriko eta garbantzuak. Nik ez nuen ezer jan. Hurrengo egunean instrukzioa egiten egon ginen egun guztia eta kanpamendura etortzerakoan ez nuen lurra ere ikusten. Hurrengoan garbantzuak jarri zituztenean platerik ere ez zen gelditu.

## PORTULARRUME



### ITURGINDEGIA

### BAINUKO ALTZARIAK



Kale nagusia, 2-2-2D  
Tlf. Denda 36 46 37  
Etxea 36 52 99

# MAHUKA



## GAZTE DENDA

Etxebeste kalea, 3 - Tlf. 943 36 11 06

## TXARO ARTZE ILEPAINDEGIA

Buru-azalaren zainketa  
Ile-apainketa

Etxebeste, 3

Tel. 37 16 85

# TXOKOALDE

## Frontoiaren arrakasta

Eukene Kamino



**H**emen ari da gure ama buruari eraginez, hau da hau marka esaten duen bitartean. Izan ere, sorotan lana egin nahi eta, ezin eguraldi txarra dela eta. Ea hobetzen den baserriarrok artoa eta babarruna ereiteko, belarrak ontzeko eta piparra landatzeko. Piparrak aipatu ditudanez, esan honen prezioari buruz hitz egiteko bilera apirilaren 25ean izan zela Kalezarren.

Piper kontuak utzita, aurreko Noaua!n Imanolek zioen bezalaxe gure frontoi barruan argi fokoak jarri dituzte. Nahi duenak bertan dagoen botoi baten

bidez piztu ditzake gaueko hamarrak bitartean.

Arrakastatsua suertatu zaigu benetan frontoi hau, azkeneko larunbat goizetan hainbat ume eta guraso pasa baita hemendik Aitzaga Kultur Elkarteak eta Usurbilgo Pilota Eskolak haurrentzat antolatu duten txapelketa dela eta.

Frontoia oso dotore dago, bai, orain auzoko lanak bukatzea falta da hau ere dotore ikus dadin. San Esteban aldera doan bidearen bi aldeak margotu beharrak daude kotxearekin nondik goazen ondo ikus

dezagun. Estazio bideko ur erretenak ere garbitzeko daude, ur guztia bertan gelditzen baita ez aurrera eta ez atzera.



# KALEBERRI

## Udaberria eta festa giroa

Arantza Irazustabarrena



**A**zken aldi honetan Usurbil obretan bizi da. Alde batetik kaleak konpondu eta konpondu dabilta, Gaztañaga ondokoa adibidez; eta beste aldetik etxeak egin eta egin ari dira. Ja hasi dira Galtzaragaña pareko etxebizitzak egiten eta geroago hasiko omen dira Txaramuntoko lanak. Eraikuntzako langileek ez dute lanik falta gure herrian behintzat!

Batzuen ustez herriaren haunditze hau ona da biztanleen kopurua hazteko. Baina beste batzuek ez dute hain begi onez ikusten gure herri txikia nola hazten ari den; Usurbil betiko herri txikia izatetik hiri izatera pasako den beldur dira.

Beste gai bati helduz, Usurbilen azken aldi honetan lapurreta bolada bat izan da zenbait lantegi, denda eta tabernetan. Hala ere, azken egunetan lasaitasuna bueltatu



dela dirudi.

Lasaitasun honekin, eta azkenaldian lagun dugun udaberriko giroarekin batera, festa usaina datorkigu herrira. Maiatzaren 2an, aurreko igandean, Andatza eguna izan zen. Eguraldia oso alai ez zegoen arren, jende mordoska bildu zen goran. Arratsaldean, berriz, ez zen animazioa falta izan herrian titiritero talde batekin. Orain presta gaitzen maiatzaren 23rako, Sagardo egunerako.

Herria handitzen eta aldatzen ari bada ere, Usurbilen badira zenbait gauza aldaezinak eta horietako bat sagardo eguna.

Ondo pasa!

# ATXEGALDE

## Kotxe artean

**O**brak zirenean obrak zire-lako, baina orain... Orain zergatik ez dago Atxegalden kotxea uzteko tokirik

Gero Ama beti "moskeatuta":

-Gaur ere ordu txikitik bueltatu al zara?

- Gaur goiz etorri naiz baina badakizu, kotxea uzteko tokirik ez eta bueltaka...

Bromak utzita, egia da azkenaldian benetan zaila dela kotxea egoki aparkatzea. Gainera, edozein ordutan aparkalekua beteta dago, bai goizean, eguerdian zein arratsaldean eta gauean zer esanik ez.

Hau ikusita eta kuriositateak jota hor abiatu naiz aparkaleku kontari eta, hara! Atxegalden 90 aparkalekutik gora dago eta, aldiz, auzotar guztion artean 70 bat ibilgailu ditugu; Zer dela eta sortzen da orduan arazo hau? Ziurrenik erosotasuna dela eta. Kotxea etxetik ahalik eta hurbilen utzi nahi dugu eta ez gara leku bila ibiltzen beste kaleetan. Ondorioz, kotxe mordoa pilatzen da portal inguruetan.

Aparkatzeko arazo hauek alde batera utzita, inoiz pentsatu al duzue kotxe artean gertatzen direnei buruz?

Amagoia Mujika



Ba, mugimendu ugari egoten da kotxe artean: "gordeketa" dabilzan haurren gordeleku dira kotxeak; Katuen gaueko aterpe ere badira, etxeakoandreen goizeko eguzkipeko tertulia gozoak kotxe inguruan ematen dira; baita ikastolatik bueltan datozenen maitasun komeriak ere.

Gauza asko egosten da kotxe artean. Aurrekoan, etxera bueltan, kotxea ahal nuen moduan aparkatu eta banindoanean, gure Josetxo azaldu zitzaidan kotxe artetik "¿tienes vinarre"? eginaz. Hara hemen kotxe artean dabilen beste bat.

# KALEZAR

## Zabor artetik

**D**otorea da bai Kalezar, eta kaleartarron esku dago aurrerantzean ere hala mantentzea. Hala ere, ez da dena auzokoon lana bakarrik.

Aspaldi Portalea etxe aurrean (Kalezarko sarrera ermita aldetik) beira, papera edota kartoia, plastikoa eta pilak biltzeko ontzi berezi bezain egokiak jarri zituzten. Egoki daude zalantzarik gabe! Baina zertarako horrenbeste kontenedore? Zertarako beharrezkoena falta bada? Zabor poltsak gordetzeko leku egokirik ez dago. Ez da ikusmira ederra izaten kalean zehar hondakinak zabaldurik ikustea. Izan ere, katu eta txakurrak poltsetan

usnaka aritzen dira, puskatu eta zabor hondarrak kale erdian uzten dituzte. Ez al da sarrera itsusi eta petrala horren auzo dotorerako?

Zabor poltsak gordetzeko ontzi bat izango bagenu ez litzateke halakorik gertatuko eta zabor biltzaileentzat lan bat gutxiago.

Portaleko hau adibide bat besterik ez da, auzoko beste lekuetan ere antzeko zerbait gertatzen baita. Ea bada, luze baino lehen jartzen dizkiguten! Kaleartarrok eskertuko genuke eta Kalezarrek ere bai.

Gaia guztiz aldatuz, dena ez baita kexa izango, aipatzekoa

Andoni Udabe



da Puntapaxen egindako bide berritza. Lehengo zulo haiek tapatu eta galipotazko moke-ta goxoa bota dute orain gutxi. Bazegoen premia alajaina! Bejondigula!

# SANTUENEA

## Orian arrantzan

**O**ria ibaiak beti gordetzen dizkigu ustekabeak, onak eta txarrak. Batzuetan uholdeak, bestetan ur zikinak eta oraingo honetan aingirak arrapatzera etortzen diren nafar batzuk.

Gipuzkoako ibai luzeena dugu Oria ibaia, San Adrianen jaio eta Orion itsasoratu. Bide luze horretan hainbat herri zeharkatzen ditu. Herri haue-tan, gaizki zaintzen dituzten enpresak aurkitzen dira, ez denak noski.

Adibidez ezagunak zaizkigu Tolosako papelerak egindako isurketak, gehienak gauez, jen-

deak kolorea edo usua nabarmendu ez dezan .

Horrelako isurketak asko egin izan dira eta ez bakarrik enpresetatik, herriko ur zikinak ere bota izan dira inongo kontrolik gabe. Zorionez isurketa hauek kontrolpean daude ja.

Gipuzkoan dauden erribera haundienak Oria ibaiaren ertzean daudenak direla ere esan beharra dago. Esate baterako, Bizkarre azpian dagoena edo Aginagan dauden soro eta belaze haundi horiek.

Hauek dira gaur egun, Zestoako Iraetakoarekin bate-

ra, erribera haundienak eta probetxugarrienak, nekazal erabilerako erabiltzen direnean batipat.

Garai batean, arrantzatik bizi zen jende asko, Aginagako angulak harrapatzen adibidez. Baina orain dela gutxi, Santuenea auzoko Aialde-berri baserriaren ondoan, nafar batzuk zeuden aingirak harrapatzen. Gauez egoten dira goizeko lauak arte. Hauen plana ez da batere txarra, afari eder baten ondoren kañabera hartu, zubi ondora joan eta hor egoten dira aingirak edo dena delakoa noiz harrapatuko zain. Hau da humorea

Agustin Esnaola



# URDAIAGA

## Joerak

**B**erriz ere nire txanda etorri da eta hainbestetan hitz egiten dugun gaiari segituz, eguraldiari buruz idaztera ausartuko naiz, baina ez natzaizue besteetan bezala zer eguraldi egin duen esaten ari-tuko.

Oraingo honetan eguraldia- ren eraginez izaten ditugun joerez hitz egingo dizuet. Guztiok dakigu bai ilargiak eta bai hego haizeak eragin haun- dia izaten duela guztion arte- an, baina badira izugarri antze- maten dutenak ere. Batetik animaliak daude, baina hauek ongi ezagutu behar dira egu- raldi aldaketaren bat datorren

jakiteko. Bestetik, gure auzoan dauden sendategiko gaixoak dira izugarri ondo antzematen dutenak. Badira hilabete batzuk gaixo hauei begira jarri nintzela eta auzokoek esan bezala, baieztatu nuen gaixo hauek eguraldi aldaketen berri emaille zuzenak direla. Badakit nahikoa arraroa dirudiela baina egiaztatua dago hau guztia.

Sendategian, kalera irten dai- tezkeen gaixoak, herrira jeisten direnak eta irten ezin direnak aurkitzen dira. Irteten direnen artean atzeman genuen ze nolako joerak izaten zituzten. Sendategitik irten eta San

Estebango ermitaraino igotzen badira hurrengo egunean hego haizea izaten da eta Txoko Alderako norabidea har- tzen badute aldiz, eguraldiak txarrera egiten du.

Eider Jauregi





# AGINAGA

## Sendabelar ikastaroa

**A**ginagako Arrate egoitzak Aekintzak antolatzen jarraitzen du. Oraingoan sendabelar ikastaroaren txanda izan da. Pasa den apirilaren 20an hasi ziren eta aginagar mordoak bil-

tzen da bertan sendabelarren inguruko ezagutza haunditu asmoz.

Ikastaroan parte hartzeko izena emateko epea ireki zutenean, espero ez zuten arrakasta izan zuen ikastaro honek. Guztira 36 aginagarrek eman zuten izena eta horregatik, bi txandatan egiten dute ikastaroa. Izan ere, asteartetan bil-

Izaro Aizpurua



tzen dira Arrate egoitza gaineko gelan. Txanda bakoitzak ordubeteko ikastaroa egiten du.

Bertan zer egiten duten?

**Zorion Intxaustik** zuzentzen du ikastaroa. Sendabelarrak zeintzuk diren ikasi, zertarako erabili daitezkeen ikusi, nola prestatu daitezkeen... ikastaro interesgarria dela ezin ukatu. Nork ez du ba oraindik amona, izeba edo inguruko ezagunen batek egindako ukenduren bat eman?

Ikastaroa lau astekoa denez, endabelarrak ezagutzeko denbora gutxi gelditzen zaie ja. Aprobetxatu bada.



# ZUBIETA

## Arto Transgenikoa

**G**aurkoan, urtez urte etxean entzundako esaera bat datorkit gogora: "San Markos aurrea atzea baino hobea", arto babarrunak eriteko sasoiak entzun izan duguna. Oraingoan ez noiz eta nola, baizik eta zer eritekoari emango diogu garrantzia, gogoeta eta galderak eginez.

Iaz Nafarroan erein omen zen Europa osoan eztabaida gogorren dabilen "arto transgenikoa". Lur sail haundietan erein omen zuten dirutza handia suposatuko omen duen inbertsioa eginez; hau horrela izanda hain arriskugarritzat jotzen den artoa atarrietan dugu dagoeneko. Ezinbestean gorde behar dituen arauak eman

gabe arto hau erein duen enpresa hauek beste artoaren aldean erdi prezioan salduko omen die arto hau nekazariari.

Gure artean ba ote da norbait arto transgeniko hau zer den argi eta zehatz informazioa emango ligukeenik? Gure soroetan geu akordatu ere egin gabe ereina izan ez dadin, gainerako landareriarentzat zer mugaketa eta aldaketak ekar litzakeen dakienik ba ote da inor?

Guk ez bezala, Ameriketako indioen erligioak sakratutzat dauka lurra, lur zati bakoitza. Berentzat gu lurraren zati gara eta lurra gure zati, izaki guztiok

Karmele Urdanpilleta



Bera zaintzea eta errespetatzea ez ote litzateke ba geure burua eta osasuna zaintzea?



## Etxealdiako urbanizazioa berrituko dute

**A**txegaldeko urbanizazioa berritzen amaitu ondoren, Etxealdiako urbanizazioaren txanda iritsi da. Auzokoen aspaldiko eskari bati erantzunez, udalak urbanizazioa berritzeko proiektua egitea erabaki zuen urte hasieran. Apirilaren 27an egin zen plenoan berriz, proiektua, aurrekontua eta lehiaketarako oinarriak onartu ziren.

Azken urteetan Etxealdiako urbanizazioaren egoera txarra behin baino gehiagotan salatu bazuten ere, 1997ko ekainaren 1ean izandako uholdeek berrikuntza horren beharra agerian utzi zuten. Udalak Atxegaldeko urbanizazioa zuen eskuartean eta Etxealdiakoek denbora batez itxaron behar izan dute.

Izan ere, apirilaren 27an egin zen plenoan Etxealdiako urbanizazioa berritzeko proiektua onartu zen. Berehala azpiegitura osoa aldatuko da. Argiteria, bideak, hodiak, ur-



hartuneak, espaloiak... erabat berrituko da Etxealdiako azpiegitura guztia.

Oraingoaz, lanak aurrera ateratzeko oinarriak onartu eta lehiaketara atera dira. Aurrekontua 67.272.496 pezetatik beherakoa izan beharko du.

Bestalde, San Esteban kale-tik, Alfontsoenea etxe azpitik barrena Etxealdiara pasabidea egiteko asmoa zuen udalak. Urbanizazio proiektua egin dutenean, ordea, pasa-

bide hori egitea ezinezkoa izango dela konturatu dira injeneruak. Etxealdiara jeisterakotan aldapa handia geldituko litzatekeela esan dute eta elbarrituentzat bete behar dituen baldintzekin pasabidea egitea ezinezkoa izango litzateke. Horrez gain, adituen esanetan pasabide honek ez luke Etxealdiara joaten pasatzen den denbora gutxiagotuko. Horregatik pasabide hau ez dute proiektuan sartu.

### BABES OFIZIALEKO ETXEAK TXOKOALDEN

Oraindik ere bide luzea gelditzen bada ere, Errotako etxea dagoen tokian babes ofizialeko etxebizitzak egiteko pausoak ematen hasi dira. Norma aldaketarako lehen pausoa eman da, nahiz eta hasierako onespina, behin behingoa eta behin betikoa ematerako 10 hilabete baino gehiago pasako diren.

### IBARROLAKO BETELANA ABUZTURA ARTE

Badira urte batzuk Ibarrola Haundin betelanean hasi zirela. Bide horretan, kamioiak bete-bete eginda Kalezartik gora joaten behin baino gehiagotan ikusiko zenituzten. Laster, ordea, betelana hori bertan behera utzi beharko dute. Izan ere, uztailaren 31tik aurrera hor ezingo baita ezer gehiago bota.

### UDALA ETA ALDUNDIAREN ARTEKO AKORDIOA

Akordio honen bidez, enpresa txikien sorrera bultzatzeko Gipuzkoako Foru Aldundiak martxan jarri duen Enpresaberri laguntza zerbitzua erabiliko du udalak. Herri honetan sortzen diren enpresa egitasmo berriak bultzatzeko erabiliko da hemendik aurrera Enpresaberri izeneko aplikazio informatiko hau.

## Telesforo Ardoak

Zure mahairako egokienak

Kale Nagusia, 25  
Telf. 36 12 20



## Artinea Elkarte

Loreak - Lore landareak  
Lore sortak - Koroak

San Esteban  
Tlf.: 36 22 55



ARRAINDEGIA  
**PELLO**



Arizeta Kalea, 1  
Tlf 36 21 64  
USURBIL





## Gau Zeltiarra Udarregiko erdiko aretoan

**E**uskal Herria, Eskozia, Irlanda... herrialde txikiak dira hirurak. Betidanik izan dute lotura estua eta oraingo honetan musikak lotuko ditu hirurak. Mackenzie ahizpak (eskoziarrak "a capella" kantatuz eta Gránna 7 Dána taldea (irlandar musika tradizionala) izango dira Udarregiko erdiko aretoan maiatzaren 14an gaueko 22.30etan hasita Aitzaga Kultur Elkarteak antolatutako kontzertuan.

Mackenzie ahizpak oso ezagunak dira Eskozian. Urteetan zehar bakarka arrakasta ugari lortu dituzte, mundu osoan ibiliak dira eta orain musika gaeliarraren talde berri bat osatu dute: Mackenzie ahizpak. Ahotsez bakarrik kantatzen duten koro honetako partaideak Eskoziako Lewis herrian jaiotako Eilidh, Gillian eta Fiana dira. Txikitatik hasi ziren batera abesten, baina gero, beren musikari karreran ospetsuak izaterainoko bide desberdinak eraman dituzte.

Gránna 7 Dána taldeak berriz, irlandar musika tradizionala eskainiko du. Duela bi urte Ipar Irlandako More-Power to your Elbow taldearen antzera doinu alai eta freskoak eskainiko dituzte.

Gau zeltiar hau maiatzaren 14an izango da Udarregi ikastolako aretoan gaueko 22.30etan hasita. Sarrerak aldez aurretik salgai dituzue 800 pezetan. Egunean bertan 1000 pezeta balioko dute.



**Eilidh Mackenzie**

Eskoziar urtero egiten den musika eta kultura jaialdian emakumezko bakarlari modura "National Mod"eko lehengo saria eskuratu zuen 20 urte zituenean. Irratian eta telebistan izan zuen arrakastaren ondoren, 1987an grabatu zuen bere lehen iraupen luzeko lana eta "Mac-Talla" taldearekin Alemanian, Frantzia, Portugal eta Espainian kontzertuak emana da. Gaur egungo musikari famatuena (Rod Stewart, Rolling Stone...) laguntzailea izan da.

**Gillian Mackenzie**

Bigarren ahizpa honek ere "National Mod" sariko urrezko domina irabazi zuen 20 urterekin eta ordu ezkerotik Eskozia guztian zehar egin izan diren jaialdietan eskoziar abestiak kantatzen ibilia da. Gazteen koro bateko zuzendari izana, eskoziar telebistako haur programa batean abeslari modura ibili zen. Orain, laister batean grabatzea espero duen bere lehen diskorako materiala biltzen ari da.

**Fiana Mackenzie**

Bretainia Haundian eta Alemanian hiru asteko tourra egin duen "Seelyhoo" eskoziar talde garrantzitsuko abeslari nagusia da. Horrez gain, Italia eta Frantzia ere bakarka abestu izan du. Abestiak idatzi ohi ditu.

## TXIMINIA ALTZARIAK

**Osinalde industrialdea**

(Aizpurua autobusen aldamenean)

**BISITA EZAZU**

**ALTZARI-ERAKUSKETA HANDI BAT  
USURBILEN BERTAN.**

**PREZIO HARRIGARRIAK! AUKERA  
HANDIA ALTZARI TRINKOETAN.**

**ESKAINITZA BEREZIAK BETI!!**

# Mikel Elexpe Ekuadorretik bidalitako jostailuengatik usurbildarrak zorionduz

**M**ikel Elexpek eskatutako jostailuak iritsi dira Ekuadorrera. Berandu baina seguru. Izan ere gabonetarako eskatu bazituen ere, apirilean iritsi ziren Lojako haur hauen eskuetara. Mikelen eskutitz honekin batera haur hauek idatzi eta margotutako "postal" ugari jaso ditugu.



Lehen-lehenik bai Noauari eta bai Usurbil herri guztiari esker mila bidali nahi dizuet edo hobeki esanda bidali nahi dizuegu denok.

Gezurra dirudien arren iritsi berri zaizkigu zuek hain borondate onez bidalitako bost pakete hauek. Badakizue, denbora azkar doa eta barkua mantxo. Garrantzitsuena, ordea, iritsi direla eta ume hau-

ek berriro jaio balira bezala daudela, oso pozik, jostailu berri hauekin noiz jolastuko zain.

Nik, zuek dakizuenez, ez ditut oso hitz politikak zuei esateko edo nere bihotzean dagoena espresatzeko, baina ikusi besterik ez dago ume hauen aurpegi aldaketa, gaur atzo baino zoriontsuagoak dira, eta hori zuei denoi esker. Horregatik

gera zaitzte Usurbil osoa satisfazio horrekin, ume dexenteren bihotzak hautsi dituzue, eta nerea ere bai.

Nik, Joxeani (Joxe Antonio Altuna) bidali nionean eskutitz hura ez nuen inolaz ere imaji-

**Ume hauek gaur atzo baino zoriontsuagoak dira eta hori zuei denoi esker. Ikusi besterik ez dago beraien aurpegi aldaketa**

natzen bukaera hau izango zuenik, baina gauzak egin egiten dira eta gero hor daude erantzun hain positiboak.

Banan-bana zoriondu nahi zintuzketet baina luze joango litzaidake eta lehen gertatu bezala Joxeanen bidez Usurbil osoa zorionduko dut



zuen borondate, bihotz ona eta "eskuzabaltasunagatik". Jode! Hau da hitza hau!!!

Ume hauek ere zerbait egin nahi dute bere era pobrea, baina aldi berean era aberats batean, bidalitako eskutiz horietan beren bihotzaren sentimenduak baitoaz. Euskaraz ere zerbait idatzi dute. "Euskal txokoak" oraindik ez zaizkit ahaztu eta zerbait erakusten ari natzaie. Argazki batzuk ere hor doaz. Paketeak banan-bana etorri dira eta horregatik pakete bat bakarrik agertzen da argazkietan, lasai hala ere denak iritsi dira eta.

**Paketeak banan-bana etorri dira eta horregatik pakete bat bakarrik agertzen da argazkietan**


Ahazten ari zitzaidan. Beste era batean ere lagundu diguzuenoi, hau da, dirua bidaliz, jakin ezazue horrek ere asko lagundu digula. Zenbait paseo egin ditut ume hauekin eta haundienean konplejo turistikoa batetara joan ginen inauteriak pasatzera egun batez. Imajina dezakezue ume hauen poza eta zoriona! Horregatik zuei ere mila esker bihotzez.

Lehen ere banekien, baina orain egunak joan ahala gehiago dakit zein herri ederrean jaio nintzen eta bizi naizen.

Beno Usurbil, berriro ere nere eta ume triste, baina orain zoriatsuago hauen partez esker mila eta laister arte. Laster naiz berriro zuen artean.

Jainkoak bedeinka zaitzate-la. Gora Usurbil eta gora beti!!!

**Mikel eta umeak.  
Loja, apirilak 14.**



Goian Lojako ume hauetako batek bidalitako eskutizetako bat. Honelako ugari jaso ditugu Mikelen eskutizarekin batera.

## Irisasiko zenbait bide konponduko dituzte

**A**ndatza edo Irisasiko zenbait bide berritzeko asmoa du Gipuzkoako Foru Aldundiak. 1997ko ekainaren 1ean izandako uholdeen ondorioz, Andatzako bide azpiegiturak kalte handiak jasan zituen eta berandu bada ere bide horiek konpontzeko lanak lehiaketara ateratu dituzte.

Zoritxarrez ez dituzte Andatzako bide eta bide ondo guztiak txukunduko. 1997ko ekainaren 1ean izandako uholdeen ondorioz Andatzako bide asko oso egoera txarrean gelditu baziren ere, diru gutxi dagoenaren aitzakian beraiek pista garrantzitsuena jo dutena konponduko dute: Txokoaldetik Ziortzako langara doan bidea.

Txokoaldeko geltokitik Goiko guardaetxera doan bidea eta guardaetxetik Ziortzako langara doana konponduko dituzte aurrena.



Bertan, bidea berdindu, harria bota, puskatutako hodiak konpondu, berriak jarri eta ur-bideak jarriko dituzte. Hasiera batean behintzat, guztira 13.100 metro konponduko dituzte.

Izan ere, aurrekontua 12.340.515 pezetakoa izango da eta **Ismael Mondragon** Foru Aldundiko ordezkariaren arabera horrekin ezin da gauza askorik egin. "Bidea berdintzeko harria erabiliko

dugu, hormigoia oso garestia baita. Txokoaldetik gora konpondu ondoren dirurik badago bigarren mailako beste pistak ere txukunduko ditugu". Hala ere, bide hori baino gehiago konpontzea zaila izango dela aitortu digu.

Orain lan hauek ze enpresak egingo dituen erabakitzea besterik ez da falta. Ondoren, Txokoaldetik gorako bidea konpontzeko zortzi hilabeteko epea izango dute.



## Lapurretak Txurrut eta Eguzki Elkartean

**U**daberriaren etorrerarekin batera Piriniotako hartza bere loalditik esnatu den bezala, lapurrak ere Usurbil aldera azaldu dira azken aste hauetan. Apirilaren 14an ez zuten ezer lapurtu, baina saiakera bat baino gehiago izan zen. Txiriboga tabernan sukaldeko leihotik sartzen saiatu ziren, baina azkenean ez zuten sartzea lortu. Gau berean Mahuka jantzi dendan ere saiakera egin omen zuten. Apirilaren 21eko goizaldean, berriz, Txurrut tabernara sartu eta jolas makineta eta kaxako dirua eraman zuten. Hurrengo egunean Olarriondon, Eguzki Elkartera sartu ziren eta Elexpe ileapaindegian sartzen ere saiatu ziren.



# EH

Euskal Herritarrok

*Ekainaren 13an, hauteskunde egunean kanpoan bazara eman postaz zure botoa*

Argibide gehiago Aitzaga tabernan  
Tel.: 943 36 02 17/ 360218

Ordutegia: goizean 12.00-13.30  
arratsaldean 19.30-21.00



**ZUMETA  
JATETXEA**

Txoko alde, Tel.: 36 27 13

**ZUMETA MENUAK**  
(Gutxienez 2 laguntzat)

- Etxeko ahate foie-a aran pasa eta pattarraz
  - Itsaski entsalada hozberoa trufa zaporez
  - Zapoa txangurroz beterik eta itsaski saltsaz
  - Aspizuna patata pure, onddo eta pikilo piperraz haragi saltsatan
  - Etxeko azkenburuko dastapena
  - Ogia eta kafea
- 3.675 pta. (pertsonako)

## SENDOTZA OSPAKIZUNA USURBILEN

Maiatzaren bigarren larunbatean, hilak 8, herriko 17 gaztek Sendotza sakramentua hartuko dute Salbatore Parrokian, Jose Maria Setien gotzainak zuzenduko duen elizkizunean. Sendotza hartzea, gazte hauen esanetan "bizitzarekiko konpromiso bat hartzea da, kristau baloretan oinarrituko den bizitza eredu hartzea". Ez dute edonola hartuko erabakia: "ondo jabe turik, askatasun osoz eta erantzunkizunez baizik". Horretarako gazteek bi urteko heziketa prozesua eginga dute Zortza Gazte Elkarte-an. Beraz, usurbildar oro gonbidatua dago, 20.000tako ospakizunera.



**E**rlezain, erlezale, ezti erosle eta beste jende ugari hurbildu zen pasa den apirilaren 24an herriko frontoian egin zen "Erle egunera". Goizeko 10.30etatik aurrera Gipuzkoako txoko desberdinetatik ekarritako ezti erosleko aukera izan zen, ezti nola egiten den ere erakutsi zuten, eta Gipuzkoako ezti lehiaketarekin iritsi zen gailurrera. Irungo Bidasoaldeko elkartearen eztiak irabazi zuten, eta ondoren egin zen subastan 26.000 pezeta-tan erosi zuen ezti potea Saizar Sagardotegiak.

## UEMA EGUNA ZEANURIN MAIATZAREN 16AN

IX. Udalerri Euskaldunen Eguna Zeanurin ospatuko da aurten. Maiatzaren 16an hainbat ekitaldi izango dira Bizkaiko udalerri honetan. Goizeko 10.00etatik aurrera Euskal Herriko abere, txakoli, sagardo, eskulangile eta barazki azoka izango da. 11.00etan berriz, Zeanuriko trikitilari eta txistulariak ibiliko dira kalez-kale. 11.30etan ekitaldi instituzionala izango da udaletxean eta herri kirolak 12.30etan. Bazkariaren ondoren, Takolo, Pirritx eta Porrotxen emanaldiarekin eta Maixa eta Itziarren erromeriarekin amaituko da eguna. Zeanurira joan nahi duzuenontzat autobusa jarriko da.



**M**usika gau bikaina izan zen pasa den apirilaren 29koa. **Noaua! Kultur Elkarteak** Kultur Errota egitasmoaren barnean antolatutako lehen ekitaldian Bi Luma eta Mixel Ducau eta Caroline Philips izan ziren Patri tabernan. Lehenengoek gau izarratu batean, izarrei begira entzuteko moduko abesti gozoak eskaini zituzten. Hala ere, Mixel eta Caroline izan ziren ekitaldiko izarrak. Musika tresna ugariz lagunduta abesti zoragarriak entzun ahal izan zituzten bertan bildu ziren 60 lagun inguruk.




**D**uina ikasle taldeak deitu zuen grebari erantzunez, Udaregi ikastolako DBHko laugarren mailako ikasleek greba egin zuten pasa den apirilaren 30ean. Udaregiko ikasleak ikastola aurrean bildu ziren lehenik eta udaletxera joan ziren "Ikasleak ere gure eskubideak exijitu behar ditugu" jartzen zuen pankarta bat eskuan zutela. Hala ere ez ziren kalera irten ziren bakarrak izan, Usurbilgo Lanbide Eskolako ikasleak ere greba egin baitzuten.

# XABIER EDARITEGIA

- Pintxo aukera bikaina
- Gosari bereziak

Aritzeta, 2 ☎ 943 36 19 78



**Igandetan ganba-ziri mundialak!**

# JUANTXO

**Burdindegia**



Kale nagusia, 10  
Usurbil

☎ 37 00 08

## Usurbil Herri arteko pelota txapelketan

**U**surbil Gipuzkoako herri arteko txapelketan ordezkatu duen pelotariak prest daude beste urte batez txapelketa honi ekiteko. Kadete, jubenil eta afizionatu mailan Zaldibia eta Lazkaoko pelotariak izango dituzte aurrez-aurre hasierako ligaxkan.

Izan ere, aurten Gipuzkoako herri arteko txapelketak lehiaketa sistema berria estreinatu du. Orain arte, hasiera-hasieratik kanporaketak izaten baziren ere, aurten, hiru eta lau herrik osatutako taldeak egin dituzte. Taldekideek elkarren aurkako partidua jokatu dituzte, bai etxean eta bai

kanpoan, eta lehen postuan gelditzen dena kanporaketa bidez jokatu den final laurdenetara pasako da.

Usurbilek final laurdenetara pasa nahi badu, Goierri aldeko bi herri gainditu beharko ditu: Lazkao eta Zaldibia. **Enrike Huiziren** esanetan ligaxka parekatua izango da. "Hirurok maila beretsukoak gara, aurrez behintzat bat ez da besteak baino gehiago". Oraingoz Lazkaok hartu du aurrea, Lazkaon nahiz Zaldibian 2-1 irabazi baitzuen eta 4-2ko emaitza du alde.

Usurbilek maiatzaren 7an jokatu du estreinako partidua. Gaueko 22.00etan hasita Zaldibiaren aurka jokatu du herriko frontoian. Maiatzaren 14an, berriz, Zaldibian jokatu dute 21.30etatik aurrera. Maiatzaren 21ean Lazkao aldera joan beharko dute eta azken partidua maiatzaren 28an izango da herriko frontoian.



Kadeteak: Asier Portu, Asier Arruti, Ibai Orena eta Jon Irazustabarrena.  
Jubenilak: Jon Arruti, Jon Olaizola eta Aritz Esnal.  
Haundiak: Mikel Kastresana, Imanol Zarautz, Enrike Huizi, Iñigo Olaizola eta Arkaitz Izagirre

## Javier Sancho lau eta erdian irabazle

**J**avier Sancho da lau eta erdian eskuz banaka jokatu den lehen txapelketako irabazlea. Izan ere, pasa den apirilaren 25ean jokatu azken partiduan 22-11 nagusitu zen **Mikel Ibarretaren** aurrean. Partidu hasiera parekatua izan bazen ere, zazpigarren tantotik aurrera Sancho gehiago izan zen,

eta uste baino errazago lortu zuen garaipena. Hirugarren eta laugarren postua jokoan zen partidua luzeago izan zen. **Iñaki Errekondok** hirugarren postua eskuratu zuen **Haritz Urdanpiletari** 22-21 irabazi ondoren. Txapelketako jokalaria onenaren saria txapelketako irabazleak berak jaso zuen, **Javier Sanchok**.



**OSTAPE  
ARANGUREN**

GASA  
CIA  
BEROKUNTZA

☎ 943.36.43.64-943.36.16.95



**Kima**

MASAJE LEKUA

Kirol masajea eta masaje terapeutikoa

**Xabier Carbayeda eta Goyo Martin**

Balu nagusia, 44- behea  
EAS ARTE-ORIA



TEL. 36 61 97



**EDARITEGIA**

Galtzaragana 6 ☎ 943.36.07.36



## Hurrengo batean izango da

**2.** nazional mailako Usurbil K.E. eskubaloitako taldeak maila berean jarraituko du datorren urtean. Apirilaren 23tik 25era igoera fasea jokatu zuten Galizian, eta lau taldeetatik hirugarren postuarekin konformatu behar izan dute.

Beraiek ere bazekiten ez zela erraza izango. Galizia, Asturias eta Kantabriako txapelak aurka jokatu behar zuten eta beraiek Euskadiko txapelak nordeak ziren.

Hala ere ezustekoa eman zuten ia. Etxeko taldearen aurka jokatu zuten lehen partidua, eta partidua osoa irabazten joan eta gero 21-20 galdu zuten Calvo A.A. Siriaren aurka. **Aitor Arrutiren** esanetan, lau eta bost golez irabazten joan ziren, baina azkenean epaileen lanak eta hango zaletuen presioak lehen garai-pena lortzea galarazi zien.

Bigarren partiduan ere ez zuten garaipekin lortu.

Asturiasko A.A. Codema taldeak 28-21 irabazi zien. Usurbildarrek partidua txarra egin zuten gerora mailaz igoztea lortu zuen taldearen aurka.

Azken partidura presiorik gabe irten ziren Usurbil K.E.eko jokalariek. Kantabriako txapelak izandako Colindres zuten aurrean, baina usurbildarrek erraztasun osoz irabazi zien, 25-16. Beraz, datorren urterarte itxaron beharko da.

### MAIATZAK 7 ostirala

- Gipuzkoako herri arteko eskuz pelota txapelketako partidua. **Usurbil - Zaldibia.** Gaueko 22.00etan hasita herriko frontoian.

### MAIATZAK 8 larunbata

- Aitzaga Elkarteak eta pelota eskolak antolatuta umeak **Txokoaldeko frontoian jokatzen ari diren txapelketako finalerdiak** goizeko 10.30etan hasita.
- 1. errejional mailako **futbol partidua (M): Euskalduna - Usurbil F.T.** Andoaingo futbol zelaian.
- Nesken errejional mailako **futbol partidua (N): Hondarribia - Usurbil F.T.** Hondarribiako futbol zelaian.
- 2. nazional mailako **eskubaloitako partidua (M): Egia - Usurbil K.E.** Egiako kiroldegian.
- Kadete mailako **eskubaloitako partidua (M): Usurbil K.E. -**

**Egia.** Oiardo kiroldegian arratsaldean.

- Jubenil mailako **eskubaloitako partidua (M): Usurbil K.E. - Zarautz.** Oiardo kiroldegian.
- Jubenil mailako **eskubaloitako partidua (N): Urnietako - Usurbil K.E.** Urnietako kiroldegian.

### MAIATZAK 14 ostirala

- Gipuzkoako herri arteko eskuz pelota txapelketako partidua. **Zaldibia - Usurbil.** Gaueko 21.30etan hasita.

### MAIATZAK 15 larunbata

- 1. errejional mailako **futbol partidua (M): Usurbil F.T. - Aurrera** Harane futbol zelaian.

### MAIATZAK 16 igandea

- Nesken errejional mailako **futbol partidua (N): Usurbil F.T. - San Ignacio.** 11.00etan Harane futbol zelaian.

## Emaitzak

### Futbola

#### Apirilak 24-25

Usurbil F.T. 2 Ordizia 1 (1.R.)  
Allerru 3 Usurbil F.T. 1 (n.)  
Mundarro 4 Usurbil F.T. 0 (2.ju)  
Ikasberri 1 Usurbil F.T. 1 (2.ka)

#### Maiatzak 1-2

Usurbil F.T. 2 Arretxabaleta 1 (1.R.)  
Usurbil F.T. 4 Hernani 2 (n.)  
Usurbil F.T. 3 Anaitasuna B 3 (2.ka)

### Eskubaloia


#### Apirilak 24-25

Usurbil K.E. 28 Ereintza 25 (ju.m)  
Egia 14 Usurbil K.E. 13 (ka.m)  
Usurbil K.E. 10 Zarautz 25 (ju.n)

#### Maiatzak 1-2

Pulpo 20 Usurbil K.E. 29 (2.N)  
Usurbil K.E. 36 CAF 20 (ju.m)  
Usurbil K.E. 25 Urnietako 23 (ka.m)  
Andoaingo 3 Usurbil K.E. 9 (ka.n)

R.: errejionalak ju.: jubenila  
N.: nazionala ka.: kadeteak



**TXIRIBOGA**  
**TABERNA**

pintxoak, bokatak  
eta plater konbinatuak

Irazu kalea, 3 Tel.: 943 37 00 13



San Esteban kalea, 8  
TLF 36 27 70

20170  
USURBIL

## Herritarrak Herreran izan ziren

**G**ure Artera bilguneak egindako deiarri erantzunez, apirilaren 24an, larunbata, 25 herritar joan ziren Herrera de la Mancha kartzelaraino Xabier Aranburu, Xomorro, aginagarri bere elkartasuna adierazteko eta euskal preso guztien berehalako Euskal Herriratzea eskatzeko. Paoxta Irratia ere bertan izan zen, eta ia bi orduz emititu zuen kartzela aurretik presoentzat.

Hasiera batean autobus bat antolatzeak baziren ere, azken unean preso senitatekoek astero-astero bisitetarako antolatzen duten autobusean joan ziren. Gau guztia autobusean pasa ondoren, goizeko zortzietarako kartzela aurrean ziren. Eskerrak! Izan ere Xomorro bisitatzera zihoa zen bilguneko lau kideak, hamaiketan sartu ordez bederatzietan sartu behar izan baitzuten. Nonbait aurreko ostegunean presoek pankarta bat zabaldu eta zenbait pintada

egin zituzten euskal presoek Euskal Herriratzea eskatzeko eta kartzeleroek zigortu egin zituzten: kartzela barruko aislamendua, bisita orduen aldaketak, trasladoen mehatxua... Izan zen bisitara joan eta kartzelara sartu ezinik geratu zen seniderik ere, azkenean bisita ordua aurreratu zietelako.

Xomorroekin 40 minutuz egondako pertsonen albisteak jaso ondoren, ia bi orduko irratia burutu zuten kartzela aurretik presoentzat. Giroa paregabea sortu zen: txalaparta, txistulariak, bertsoak, herrian aurretik grabatutako

elkarrizketak, telefonotik zuzenean egindako elkarrizketak ... denetik alegia. Baina ezustekoa bazkal aurretik egindako etenaldian iritsi zen: bisitetatik ateratako senideek ziotenez, presoek ez zuten irratia entzuten kartzelan. Gerora baieztatu dugunez, Xomorrok ere ez zuen ezer entzun.

Albisteak bertaratutakoan artean amorrazio eta pena eragin arren, ez ziren kokildu, eta arratsaldean, kartzela aurrean pankarta bat zabaldu zuten. Ez denbora askoan ordea, goardia zibilak berehala hurbildu baitzitzaizkien.



Bertaratutakoek kartzela aurrean zabaldu zuten pankarta.



**J**ada pasa dugu lehenengo langa. Lau lagun, gehiago ezin gintezke pasa. Kartzelara bidean pasillo luze bat. Luzeegia. Komentario sinpleek eteten dute ixiltasuna. Iritsi gara bigarren langara. Langa honek ez du metalik jasaten. Emakume bat bertan. Bere aurpegia hotza da, ahotsa hotzagoa, hotzegia. Halako batean pasa dugu langa. Bisita ordua baden arren zain gaude. Atzo zigortuegin zituzten eta gaur giroa nahasia topatu dugu.

Badator, badator Xomorro. Pausoa luzea, azkarra. Lasai egon nahi du eta bazter bateko bisita gelara zuzentzen da. Gu ere bai.

Kristala hotza da, hotzegia, agur bero bat emateko. Horrelako espazio mugatu batean begiek dute gehien komunikatzen, begiratu tinkoa du, argia, sakona, agian sakonkia. Eta bietan bat, ezkerria, gorritua.

Lehenengo galderak osasunari dagozkio: bizkarra, urdaila, begi gorri hori. Hobeago nagok. Poza. Poz neurtua. Hitz egiteak, elkar ulertzeak, altu hitz egitera behartzen gaitu, horrek ez du elkarrizketa goxatzen, kolpatu egiten du. Ondorengo galderak egoerari buruzkoa. Zigorra, moduloetan

gehiago sakabanatzea, traslado baten beldurra. Ardurak ukitzen du une hau. Eta kanpoan zer? Lizarra, abertzaleen batasuna, hauteskundeak... Itxaropena, deskonpresioa. Gaiak arintzen doazen neurrian irribarreek beren lekua hartzen dute: herriko kontuak, Aginagako frontoia, aspaldi egiten duen esku lan bakarra... Oraintxe goxatzen solasa eta, lehenengo abisua, alegia bukatzen joateko, berehala bigarren, agurtzeko garaia, kristal hotzean eskua itsatsi, begiratuari pixka batean heldu, eten, azken hitzak: eutsi goiari. Pasilloan barrena, agurtzu galdu da... Ixiltasuna, malko bi. Lehenengo langa, emakumea hotz, pasillo luzea...Ixiltasuna.

**Joxe Mari Izeta**



## “Plis plas, txalo ta jolas” haurrentzako egitarauarekin auzoetara zabalduz

**N**oaia! Kultur Elkarteak, Aginagako eskolak, Santueneako eskolak, Zubietako eskolak, Udarregi ikastolak, Euskal Txokoek, Guraso Eskolak, auzoetako jai batzordeak eta Usurbilgo udalak elkarlanean prestatutako haurrentzako egitaraua martxan da. Maiatzaren 6an izango da lehen ikuskizuna, eta datozen bi hilabeteetarako ekitaldi desberdinak prestatu dira.

Iaz hasitako bideari jarraipena eman nahian aurten ere haurrentzako ekitaldiak prestatu dira. “Plis plas, txalo ta jolas” izena jarri zaion egitarauaren barnean, herriko auzoetan

ikuskizun desberdinak ikusteko aukera izango dute haurrek. Honelako ikuskizunak auzoetara zabaltzea da egitasmo honen helburua, eta horretarako egunero haurrekin lanean ari diren taldeekin batera osatu da egitaraua.

### Pirritx eta Porrotxekin merienda Kalezarren


Maiatzaren 6an, osteguna, Euskal Herrian hain ezagunak diren **Pirritx eta Porrotx** pailazoak etorriko dira Kalezarko eskolara. Arratsaldeko 17.00etan hasita pailazo hauekin meriendatzeko aukera izango dute haurrek.

Maiatzaren 8an, berriz, Zubietara hurbildu daitezke umeak. Izan ere, Zubietako eskolan “**Pantxikaren atlasa**” irakurketarako animazioa ikuskizuna aurkeztuko da arratsaldeko 17.00etan hasita. Maiatzaren 15ean berriz, “**magia potagia**”, **Txan magoa** etorriko da Santueneara. Zer trikimailurekin etorriko ote da oraingoran? Hori jakiteko Santueneako eskolara joan beharko da arratsaldeko 17.00etarako.

Ez da hemen amaitzen egitaraua. Oraindik jakirik goxoenak faltako dira. Aginagako antzokian, adibidez, **Getxoko Antzekizuna taldeak** “**Euskal Herriko itsasoa**” txontxongilo emanaldia aurkeztuko du maiatzaren 22an. 5 eta 12 urteko haurrentzat prestatutako emanaldi hau ere, 17.00etan hasiko da.

### “Xirula mirula kantari” emanaldia frontoian

Azkenik, 1999ko “*Plis plas, txalo ta jolas*” egitarauari nola-bait amaiera emango dion ikuskizuna herriko frontoian izango da. Ekainaren ean Imanol Urbietak famatuak zuzendutako “**Xirula mirula kantari**” ikuskizunean abestiak, pailazoak, merienda... denetik izango da.



Aurten ere auzoetan ikuskizun desberdinak antolatu dira. Iaz, adibidez, Joxe Mari Karrere ipuin kontalaria izan zen Zubietako eskolan.

**BAZKIDE TXARTIA**

5.000 PEZETA URTE OSORAKO

**Noaia!!**

Izena: \_\_\_\_\_

1. Abizena: \_\_\_\_\_

2. Abizena: \_\_\_\_\_

Helbidea: \_\_\_\_\_

Herria: \_\_\_\_\_

Tfnua: \_\_\_\_\_

Kontu Korrontea (20 digito): \_\_\_\_\_

**446**

**bazkide ditu Noaia!k.**

**Zu ere egin zaitez**

**bazkide**



## Bota bertsoa

### Bertso berriak Xomorrori jarriak

Epa Xomorro! Zer moduz hago?  
kaixo! Besarkada batez,  
bertso eskolara etorri gabe  
giltzapean zazpi urtez.  
Usurbildarrok harro gatxaudek  
hi herritarra izatez,  
lau bertso hauek hor dihoazkik  
bertso eskolaren partez.


Udaberria iritsi dela  
ohartuko hintzen behintzat,  
usurbildarrok nola ez hartu  
herritar preso aintzat,  
inork ez dizkik galeraziko  
elkartasunaren printzak,  
burdin ta hormak alperrik dituk  
kukuaren kantarentzat.

Udaberria etorri zaiguk  
sapa, zoli dariola,  
lehen landare txikia zena  
bihurtu zaigu arbola,  
jakin behar dek bizirik dela  
Bota Punttuba eskola,  
ta Udarregin oinordekotza  
ziurtaturik dagola.

Euskal Presoen egoera dek  
benetan penagarria,  
eremu latzak begi aurrean  
ta urruti aberria,  
baina negua ez dek betiko  
heldu dek udaberria,  
nola lorea ihintzaren zain  
hire zai zioz herria.

Bota Punttuba bertso eskola

## Lehiaketa



### Zein da baserri honen izena?

Asmatzaileen artean  
bi pertsonentzat afari  
bat zozketatuko  
dugu

Hamar izen ematea eskatu genuen zaila izango zelakoan eta... bai zera, asko eta asko izan zarete izen hauetako batzuk eman dituztenak: Rosario Zugasti, M<sup>o</sup> Dolores Aliri, M<sup>o</sup> Pilar Alkorta, M<sup>o</sup> Isabel Borda, Rosario Orella, M<sup>o</sup> Karmen Zarauz, M<sup>o</sup> Karmen Iparragirre, Pilar Gorriti, Sagrario Goenaga, Belen Zubeldia, M<sup>o</sup> Jesus Illaramendi, M<sup>o</sup> Jesus Unanue, Ana M<sup>o</sup> Garaialde, M<sup>o</sup> Karmen Zugasti, Elena Irureta, Kontxi Errasti, M<sup>o</sup> Tere Urkiola, M<sup>o</sup> Dolores Maiz, Edurne Kamino, Blanca Jimenez, Ana M<sup>o</sup> Añorga, Gloria Ibarguren, M<sup>o</sup> Arrate Gisasola, M<sup>o</sup> Luisa Beristain, Olivi Ibarguren, Marta Goiaran, Itziar Iarza, Inmaculada San Jose, Benita Agirre, Isabel Lopez, Esther Ibarguren, Arantxa Esnaola, M<sup>o</sup> Pilar Elizetxea, M<sup>o</sup> Isabel Elozegi, Itziar Sorrondegi, Lurdes Ubegun eta Kontsuelo Olasagasti. Hala ere irabazlea bat izan behar eta zozketan **M<sup>o</sup> Jesus Etxeberria Yarza** izan da afariaren irabazlea. Zorionak.

## ESTETIKA ZENTROA

*Elexpe*  
ileapaindegia

Tatuaiak  
Betileen tintaketa  
eta permanentea

Munolurra 2

Telf.: 943 37 04 62



TABERNA

"GVRE PRESOK

HERRIAN BEHAR DITVGV"

Irazu kalea, 12  
Tlf: 943 36 02 17

**MAIATZAK 6 osteguna**

- Kalezarko eskolan arratsaldeko 17.00etan **PIRRITX eta PORROTX**. Kultur Errotaren eskutik eta "Plis, plas, txalo ta jolas" aurtengo egitarauari hasiera emanez.

**MAIATZAK 8 larunbata**

- "Pantxikaren Atlasa" irakurketa animazioa Zubietako eskolan arratsaldeko 17.00etan hasita.
- Herriko 17 gaztek **Sendotza sakramentua** hartuko dute Salbatore parrokiari Jose Maria Setienek zuzenduko duen elizkizunean. 20.00etan.

**MAIATZAK 10 astelehena**

- **Euskal Herria askatu!**-ren konzentrazioa arratsaldeko 20.00etan hasita errotondan.

**MAIATZAK 14 ostirala**

- Aitzaga Kultur Taldeak antolatuta **gau zeltiarra** Udarregi ikastolako erdiko aretoan. **Mackenzie ahizpak** (Eskoziarrak a capella kantatuz) eta **Gránna 7 Dána** taldea (Irladar musika tradizionala). Udarregiko areto nagusian gaueko 22.30etan. Sarrerak aldeztuak: 800 pezeta. Egunean bertan: 1.000 pezeta.

**MAIATZAK 15 larunbata**

- **Txan magoaren aztikeriak** Santueneako eskolan.

Arratsaldeko 17.00etan.

**MAIATZAK 16 igandea**

- 9. **Udalerri Euskaldunen Eguna Zeanurin**. Euskal Herriko abere, txakoli, sagardo, artisau eta barazki azoka, herri kirolak, **Takolo, Pirritx eta Porrotx eta Maixa eta Itziar**. Autobusak jarriko dira, izen emateko zerrendak tabernetan jarrita daude.

**MAIATZAK 17 astelehena**

- **Euskal Herria askatu!**-ren konzentrazioa arratsaldeko 20.00etan hasita errotondan.

**LANPOSTUAK**

✕ **Neska bat behar dugu** uztailan goizez 3 urteko haurra zaintzeko. Deitu 943-360213 telefonora.

✕ **Aitzaga elkarrean tabernarako langile bat** behar da baja eta ordezkapenak egiteko. Izenak Aitzaga tabernan eman maiatzaren 16a baino lehen. Tlf. 943-360217.

**OHARRAK**

✎ **2cv autoa salgai** 30.000 pezetatan. Interesatuok dei ezazue 943 366014 telefonora arratsaldeko 20.00etatik 22.00ak bitartean.

✎ **Betaurreko graduatuak galdu ditut**. Aurkitu dituenak deitu 943-371495 edo 943-361013 telefonora.

**DANBORRADA**

Santixabelak gerturazten ari dira. Jaiak prestatzeko zenbait bilera egin dira, eta danborrada prestatzeko entsaiuak ere laister hasiko dira.

Santixabel egunaren bezperako helduen danborradan edo Santixabel eguneko haurren danborradan parte hartu nahi duenak maiatzaren 8an arratsaldeko 16.00etatik aurrera Agerialden izango da izena emateko aukera.

**PLIS PLAS, TXALO TA JOLAS**

☐ Maiatzaren 6an Pirritx eta Porrotxekin merienda izango da Kalezarko eskolan arratsaldeko 17.00etan.

☐ Maiatzaren 8an, larunbata, Zubietako eskolan, arratsaldeko 17.00etan, "Pantxikaren atlasa" irakurketarako animazio emanaldia.

☐ Maiatzaren 15ean Txan magoaren aztikeria ikusteko aukera izango da Santueneako eskolan arratsaldeko 17.00etan hasita.

**Txoko honetan publizitatea egin nahi baduzu deitu**

**943-360321 telefonora**

# Egin zaitez Noaua! Kultur Elkarteko



## bazkide

# IKUTZA

# ARROZTEGIA

**Edozein motatako negozioa ezartzeko aroztegi lanak  
eta etxebizitzako berrikuntzak:**

barruko zein kanpoko ateak

· lurra

horma-armairuak


sukalde nahiz bainuko altzariak

logelako eta jangelako altzariak

**Neurri guztietan eta**

**material ezberdinetan: haritza, gereziondoa...**

# TXOTXETIK SAGARDOA JARRAITU USADIOA



## URDARRA



Aginaga, Tlf: 943 37 26 91  
Urtarrilaren 16an irekiko dugu.

## AGINAGA



Aginaga, Tlf: 943 36 67 10  
Etxeko sagardoa dastagai urte osoan.

## ARRAETA



Zubieta, Tlf: 943 36 20 49  
Egunero txotxeko sagardoa dastatzeko aukera.

## ILLUNBE



Txokoalde, Tlf: 943 37 16 49  
Sagardotegi eta jatetxeko menua egunero.

## IRUIN



Zubieta, Tlf: 943 36 12 29  
Eguerdietan irekita eta igandeetan itxita.

## SÄIZAR



Kalezar, Tlf: 943 36 22 28  
Igande gauetan eta astelehen eguerdian itxita